

# Denbora

## 1 Inkesta

Laukian ezkutuan dagoen irudia ikusteko, galderei zuzen erantzun beharko diezu lehenengo. Erantzun egokia asmatu, eta laukian margotu, erantzun bakoitzari dagokion kolorearekin. Horra irudia!

**1. Realak zenbat Liga irabazi ditu?** (Erantzun zuzena marroiz margotu)

- 1.- 2.
- 2.- 3.
- 3.- Bat ere ez.

**2. Non ikus daitezke garai bateko dinosauroak?** (Erantzun zuzena urdinez margotu)

- 4.- San Telmo museoan.
- 5.- Abraa akuarioan.


6.- Karpin Abentura parkean.

**3. Zein herritako piperrak dira oso ezagunak?** (Erantzun zuzena urdinez margotu)

- 7.- Tolosakoak.
- 8.- Ezpeletakoak.
- 9.- Bakaikukoak.

**4. Nork irabazi du Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria?** (Erantzun zuzena laranja margotu)

- 10.- Julen Gabiriak.
- 11.- Jesus Mari Olaizola Txiliku-k.
- 12.- Juan Kruz Igerabidek.



**5. Nongoa da Iban Mayo txirrindularia?** (Erantzun zuzena marroiz margotu)

- 13.- Igorrekoa.
- 14.- Ibarreakoa.
- 15.- Gernikakoa.

**6. Nola izena du euskal mitologiako begi bakarreko pertsonaiak?** (Erantzun zuzena marroiz margotu)

- 16.- Jentila.
- 17.- Tartalo.
- 18.- Mari.



## 2 Hitzekin jolasean

Ezkerreko zerrendako hitzak erraz irakur ditzakezu, ezta? Jakin ezazu eskuinean ere hitz horiek berak daudela, baina nahasirik. Hizkiak lekuz mugitu, eta ezkerreko hitzak bilatu behar dituzu eskuinean.

- |               |               |
|---------------|---------------|
| 1) MANTENTZEA | a) ARRATIRREH |
| 2) GALTZERDI  | b) TUSDTISIAR |
| 3) HERRITARRA | c) IDREZTLAG  |
| 4) ALPROJA    | d) IKLATSE    |
| 5) ESTALKI    | e) AJORPLA    |
| 6) ELEFANTE   | f) TMEZETANNA |
| 7) DISTIRATSU | g) ETNAFELE   |

## 3 Kopiatu laukiz lauki

Egiptoko piramideak marrazten aritu dira Markel eta bere lagunak jolas orduan. Marrazkiko piramidea eredutzat hartuta, ea zuk ere marrazten duzun.





# -pasak

## 4 Ezkutuko hitza

Manex pilotalekuetara joaten da maiz aitonarekin. Nora, ordea? **Hizkiak** lekuz mugitu, eta Manex izan den lau pilotalekuren izenak osatuko dituzu.

**LBAIRT**  
**GOETA**  
**SATLENAE**  
**ATNOA**

## 5 Margotu eta asmatu

Mikelek marrazki bat egin du, bere lagunari emateko. Baina zer marraztu du? Hori zuk asmatu beharko duzu. Nola? **Tarte bakoitza** dagokion kolorearekin margotuta.

1. Marroia      3. Berdea      5. Urdina  
 2. Zuria      4. Gorria

## Esaldi barregarria

Aditz jakin batzuk emanda denbora laburrean istoriotxo bat asmatzeko gai al zara? Ez pentsa hain erraza denik!!



- Jokalari guztiak bilduta daudenean, bakoitzak aditz bat esan beharko du ozen. Orotara, 5 bat aditz esan behar dituzte; gosaldu, abestu, entzun, ikusi eta atera, esaterako.
- Jokalari bakoitzak bi edo hiru minutu izango ditu istorio txiki bat asmatzeko. Nahi duena konta dezake, baina ezinbestekoa da aurrez aipatu diren aditz guztiak erabiltzea. Aditzak esandako hurrenkeran eman behar dira, eta ezin da besterik tartekatatu. Gure kasuan hauxe izan liteke ipuintxo: «Haurrak, gosaltzen ari zen bitartean, oilarra abesten entzun zuen. Zuhaitzean ikusi zuenez, argazkia atera zion».
- Hitzartutako denbora bukatzen denean, bakoitzak pentsatu duen istorioa kontatu beharko die besteei. Uste baino esaldi xelebrea goak sortzen dira batzuetan. Ikusiko duzu zein dibertigarria den. Erabili irudimena!!!

